

TREBETASUNAK ETA OHITURAK HOBETZEKO LAGUNTZA SOZIO-EDUKATIBOA ETA PSIKOSOZIALA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Pertsona 18+ buru gaixotasuna > laguntza etxean eta/edo bizitza autonomia izateko

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Zerbitzu hau gizarte- eta hezkuntza-laguntzako edo laguntza psikosozialeko prestazio multzo bat da, banakakoak edo taldekoak, eta familiaren etxean (etxeko hezkuntza, oinarrizko familia-esku-hartzea) nahiz komunitatean gara daitezke ([1.3 fitxa](#)). Bere helburuak dira erabiltzaileak:

- gaitasun pertsonalak (jarrerak, gaitasunak, ezagutzak, irizpideak, jarraibideak, trebetasunak), familiakoak edo taldekoak eskuratu eta garatzea, beren kasa moldatzen lagunduko dietenak;
- desegokiak diren ohiturak, jokabideak, pertzepzioak, sentimenduak eta jarrerak ordezkaten dituztenak, egokiagoak diren beste batzuekin ordezkatea.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

Mendekotasun-arriskuan dauden adin guztietako pertsonak.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

Hezkuntza-laguntza eta/edo laguntza psikosoziala behar izatea:

- familiako bizikidetzak hobetzea;
- kideen arreta- eta zaintza-trebetasunak hobetzea;
- eta/edo garapen autonomia ahalbidetzeko.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Zerbitzua ematea **udalen ardura** da.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude eta gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta zerbitzu hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

[Fitxa laburrera itzuli](#)